

KOSTUEN JARDUERAK

Badakigu proiektuak denbora eta dedikazioa asko kostatuko zaigula, eta gainera, horretaz aparte dirua, zuzenean eskuragarri ez dugu, baina horretarako konponketa dago.

Hasteko gastuekin, finko batzuk izango ditugula dakigu, patentea, mugikorraren eta wifiaren kontrata, abokatuak, aholkulariak, soldatak... Hori gutxi izango balitz, kostu aldakorrak izango ditugu baita, hain zuzen ere, bilerak egiteko espazioaren alokairua, teknologian inbertitzeko (adibidez ordenagailuak edo tableta...)...

Horregatik, guztia legez eta pertsonalki dena behar bezala eramateko, aholkulari bat kontratatuko dugu. Proiektua aurrera eramateko bankuari mailegu bat ere eskatu beharko genioke, diru-iturria gastuak baino handiagoa izan arte.

Finantzaketa eraginkorragoa izan dadin, ezin hobea izango litzateke ekonomikoki nahiz publizitatean babesten gaituzten enpresa eta / edo erakundeekin harremanetan jartzea. Adibidez Gasteiz-ko udaletxea, kotxe markarenbat, parkinak edota mundu honekin zer ikusia duen edozeinenkin.

Soldatak aipatu izan dudanez, erantsi nahiko nuke langile nagusiak ekintzaileak izango garela (kasu honetan lau). Hala ere, ez daukagu zalantzarik aplikazioa garatzeko, arlo horretan espezializatutako informatikaria edo norbait beharko dugula. Baina enpresa ez hierarkizatzen saiatuko gara, gutako bakoitzak bere funtsezko zutabea baitgara eta gutako batek huts egingo balu, proiektuak ezingo luke aurrera egin.